



## JARRAIBIDEA, FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARITZARENA, 2012AN LANGILE-GASTUAK MURRIZTEKO NEURRIAK EZARTZEN DITUENA

Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen 472/2009 Dekretuak, VI. kapituluan, besteak beste ezartzen du sailburuordetzaren zeregina dela "giza baliabideekin lotutako politikaren planifikazioa eta gauzatzea zuzentzea eta koordinatzea, baliabide horiek gizartearen premia eta eskeei egokitzeko burutu beharreko jarduerak proposatuz, bai eta Administrazioa egituratzen duten unitateak arrazionalizatzea eta ordenatzea ere".

Dekretu bereko 21. artikulua ezartzen duenez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak garatu, kontrolatu eta gauzatzen du giza baliabideen politika, Jaurlaritzak ezarritako jarraibideen arabera; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan lanpostuak modu egokian hornitzeko behar diren lanabesak kudeatzen ditu.

Legebiltzarraren 2010eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran lehendakariak iragarritako doikuntza-neurriek Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren jarraibide bat ekarri zuten, 2010ean langile-gastuak murrizteko. 2011rako ere, langile-gastuei eusteko neurriei buruzko beste jarraibide bat eman zen.

Bestalde, EAEko Administrazioak, bere menpeko erakundeek, bere eskumeneko unibertsitateek, merkataritza-sozietate publikoek, enpresa-erakunde publikoek eta gainontzeko erakunde publiko nahiz sektore publikoko erakunde autonomikoek bete beharreko hainbat neurri ezarri ditu estatuko gobernuak 2012rako, Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuaren bidez. Errege lege-dekretuak zehazten ditu zeintzuk diren oinarritzko neurriak. Egoera berri honek, gastua murrizten jarraitzeko helburuari lotuta, 2012ko langile-gastuetarako neurrien jarraibide berri bat egitea eskatzen du.

Horregatik guztiagatik, lanpostuak betetzeko, ordezkapenentarako eta aldi baterako kontratazioentarako irizpideak, kontrol-tresnak eta prozedurak zorrotz aplikatzen jarraituko da 2012an.

Jarraibide honetan azaltzen diren neurriak ulertzea eta betetzea eta ukitutako sektore publiko osoko langile-kudeaketako organoen lankidetzaren ezinbestekoak dira.

Jarraibide honen berri aurrekontu eta kontrol ekonomikoko gaietan eskumena duen sailari emango zaio, gastua kontrolatzeko eta aurrekonturako ezarri behar diren neurriak hartu ditzan.

Neurri hauen helburua, 2012an langile-gastuei eustea da. Zehazki honakoak lortu nahi dira:

- Ordezkapen-gastuak ahalik eta gehien murriztea.
- Lan-pilaketek eragindako gastuak ahalik eta gehien murriztea.
- Plaza hutsak kontrol zorrotzarekin betetzea.

Helburu horiek lortzeko, ondoren aipatzen diren kudeaketa- eta antolamendu-neurri hauek hartuko dira.

## **LANGILE-KUDEAKETARAKO NEURRIAK**

Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premia-ko neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege Dekretuak hauxe esaten du 3.2 artikuluan:

*2012an ez da aldi baterako langilerik kontratutako, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionariarik izendatuko ere, salbuespenezko kasuetan eta premia-ko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken horiek, gainera, lehenetsuneko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta lanbide-kategorietara mugatuko dira.*

### **1.- Lanpostuak betetzea**

Zerbitzu-zuzendariek absentzien iraupena justifikatu beharko dute lanpostuak betetzeko espedienteak eskatzen dituztenean.

#### **1.1.- Ustez 12 hilabetetik gorakoak izango diren absentziak betetzea**

Ustez 12 hilabetetik gorako absentzia izango duten lanpostuak beteko dira, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorritik: zerbitzu-eginkizunak eta zeregin-esleipenak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Agindua, lan-baldintzak arautzen dituen akordioa (83/2010 Dekretua) eta Langileen Estatutua).

Oro har, ez da baimenik emango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko 2006ko maiatzaren 30eko Akordioak arautzen duen prozeduraren bidez langileen bitarteko izendapenak eta aldi baterako lan-kontratuak egiteko.

Alabaina, salbuespena egingo da funtsezkotzat jotzen diren zerbitzuen funtzionamendua oso kaltetuta geratu daitekeen kasu berezietan: ikastetxeetan, Ibaiondo zentroan, osasun publikoko zereginetan, Zuzeneanen, Diru-sarrerak Bermatzeko Oinarrizko Errentan, eta 2011-12-31ren aurreko lehiaketa eta lan-eskaintza publikoak ebaztearen ondorioz hartzailek gabe geratzen diren postuetan. Funtsezkotzat jotzen diren edo funtsezko zerbitzuei eragiten dieten sektore, zeregin eta lanbide-kategoriari lotutako kasuak baimendu ahal izango ditu Funtzio Publikoko zuzendariak, zerbitzuak langile propioekin eman ezin baldin badira.

Horrelako kasuetan, saileko arduradunak arrazoitu egin beharko du funtsezko zereginak zergatik ezin diren langile propioekin egin, eta funtsezkotzat jotzen diren **zereginak** saileko langileen artean **banatzea ezinezkoa** dela justifikatzen duen txosten bat bidali beharko du zerbitzu-zuzendaritzak eskaerarekin batera. Horretarako, zeregin horiek beren gain har ditzaketen saileko langile guztien kargei buruzko galdetegia bete beharko du. Eskaera aztertu ondoren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak gaiari buruzko txostena egiteko eskatu ahal izango dio Funtzio Publikoaren Sailburuordetzako Ikuskaritza Zerbitzuari.

#### **1.2.- Ustez 12 hilabetekoak edo laburragoak izango diren absentziak betetzea**

Ez da baimenik emango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko 2006ko maiatzaren 30eko Akordioak arautzen duen prozeduraren bidez langileen bitarteko izendapenak eta aldi baterako lan-kontratuak egiteko.

Oro har, sailena izango da langileak antolatu eta uneoro zereginak langile propioekin betetzeko ardura. Horretarako, jarraibide honetan ezarritako banaketa-irizpideak bete beharko dituzte: antolaketa-neurriak.

Ezaugarri horiek dituen langile propioarik ez izanez gero, zeregin-esleipena beharrezkoa dela justifikatzen duen txostena bidaliko du zerbitzu-zuzendaritzak, betiere 2006ko maiatzaren 30eko Aginduak ezarritako baldintzak betetzen badira. Ez da zereginik esleituko eta ordainduko lehenengo absentzia-hilabetean. Hilabete hori pasatuta, baimena eskatu beharko da eta, emanez gero, baimen horrek ez du atzeraeraginezko ondorio izango. Zeregin-esleipen horiek ez dute ondorio ekonomikorik izango prozedura ebatzi arte.

Salbuetsita geratzen dira eta, hortaz, bete ahal izango dira, funtsezko zerbitzuei eragiten dieten postuak: ikastetxeetakoak, Ibaiondo zentrokoak, osasun publikoko zereginetakoak, jendea hartzekoak (Zuzenean, DBE, Lanbide) eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren iritziz 1.1 idatz-zatiko irizpideen arabera kontratatu behar diren postuak. Alabaina, sailek beraien langileak antolatu beharko dituzte, aurretik aurreikusita dauzkaten funtsezko zereginak haien artean banatzeko: EPEak eta ohikoak diren eta aurreikusita dauden aldi baterako prozesu edo jarduerak.

Eskaeran, zereginak langile propioekin eta jarraibide honetako irizpideak betez ezin direla gauzatu adierazi beharko dute.

#### **A) Ikastetxeak:**

1.- Oro har, ez da lanpostu-betetzetik baimenduko, honako kasu hauetan izan ezik:

Laguntzaileak:

- Dotazio bakarra dagoen ikastetxeetan, 2 egunetik gorako absentziak betetzeko baimena emango da. Ikastetxeko zuzendaritzak absentziaren iraupena bidali beharko dio Zerbitzu Zuzendaritzari.
- Dotazio bat baino gehiagoko ikastetxeetan, lan-karga dela-eta ordezkapena beharrezkoa dela justifikatzen bada, 5 egunetik gorako absentziak ordezkatzeko dira, aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

Mendeko langileak:

- Dotazio bakarra dagoen zentroetan, egun 1etik gorako absentziak betetzeko baimena emango da. Ikastetxeko zuzendaritzak absentziaren iraupena justifikatu beharko du.
- Dotazio bat baino gehiagoko ikastetxeetan, ordutegiak edo eraikin-kopurua direla-eta ordezkapena beharrezkoa dela justifikatzen bada, 2 egunetik gorako absentziak ordezkatzeko dira, aurreko idatz-zatian ezarritakoarekin bat etorritik.

2.- Lanaldi-murrizketengatiko ordezkapenak kasu hauetan besterik ez dira baimenduko:

Laguntzaileak:

- Dotazio bakarreko ikastetxeetan.

- Dotazio bat baino gehiagoko ikastetxeetan, lan-karga dela-eta ordezkapena beharrezkoa dela justifikatzen bada.

Dotazio bat baino gehiagoko ikastetxeetan, aurreko baldintza bete gabe, aldi berean hainbat lanaldi-murrizketa baldin badaude eta horrek ikastetxearen funtzionamenduan oztopoak sortzen baldin baditu. Eskaera 1.1 idatz-zatian adierazitako moduan egin beharko da.

#### Mendeko langileak:

- Dotazio bakarreko ikastetxeetan.
- Dotazio bat baino gehiagoko ikastetxeetan, ordutegiak edo eraikin-kopurua direla-eta ordezkapena beharrezkoa dela justifikatzen bada.
- Dotazio bat baino gehiagoko ikastetxeetan, aurreko baldintza bete gabe, aldi berean hainbat lanaldi-murrizketa baldin badaude eta horrek ikastetxearen funtzionamenduan oztopoak sortzen baldin baditu.

#### **B) Zuzenean**

Zentro kudeatzailean absentzia bakarra dagoenean, 10 egunetik gorako ordezkapenak baimenduko dira. Eta zentro kudeatzailean absentzia bat baino gehiago baldin badago, ordezkapenak hirugarren egunetik aurrera egingo dira.

Oro har, lanaldi-murrizketak ez dira ordezkatu, langile bakar bat bada murrizketa eskatzen duena. Bi pertsona edo gehiago baldin badaude lanaldi-murrizketarekin, eta horren ondorioz zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko arazoak daudela egiaztatzen baldin bada, lanaldi osoa egingo duen bitarteko funtzionario bat izendatu ahal izango da.

#### **C) Ibaiondo zentroa**

Langile faltaren ondorioz beharrezko zerbitzua eman ezin denean baimenduko dira ordezkapenak, zentroko zuzendaritzak egoera hori behar bezala egiaztatu ondoren.

#### **D) "Osasun publikoko" zereginak dituzten lanpostuak**

Langile faltaren ondorioz oinarrizko zerbitzua eman ezin denean eta lehentasuna duten zereginak antolamendu-neurriekin bat etorritik banatu ezin direnean baimenduko dira ordezkapenak, zentroko zuzendaritzak egoera hori behar bezala egiaztatu ondoren.

#### **E) Lanbiden Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarako dauden administrariak**

F) Dagokion sailaren eskaera arrazoitua eta justifikatua aztertu ondoren, **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren iritziz** absentzia gertatzen den lanpostuko betebeharrak eta zereginak bete ditzakeen langilerik ez baldin badago, eta zeregin horiek egitea ezinbestekoa baldin bada zerbitzu publikoa emateko.

#### **2.- Lan-pilaketak:**

Oro har, eta 20/2011 Errege Lege Dekretuan oinarrituz, ez da lan-pilaketarik baimenduko.

Zerbitzu publikoan eragin zuzena dutelako, salbuespenezkotzat joko dira ondoren aipatzen diren lan-pilaketako kasuak eta, kasu horietan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak lan-pilaketak baimendu ahal izango ditu, eskaera egiten duen sailak justifikatu ondoren funtsezko zereginak edo funtsezko zerbitzuei eragiten dieten zereginak langile propioekin ezin dituela gauzatu. Ikuskaritzak, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren eskariz, saileko zereginak langile propioekin ezin direla gauzatu egiaztatzeko jarduerak egin ahal izango ditu.

- **Ikastetxeetako** plazak betetzeko zerbitzu-eginkizunen espedienteak izapidetzen diren bitartean:

- Laguntzaileak: laguntzaileen dotazio bakarra duten edo lan-karga dela-eta zerbitzua emateko ezinbestekoa den ikastetxeetan, laguntzaile-zereginetarako langileak lan-pilaketako kontratuarekin hartzeko baimena emango da.
- Mendekoak: mendekoen dotazio bakarra duten eta zerbitzua emateko ezinbestekoa den ikastetxeetan, mendeko langileak lan-pilaketako kontratuarekin hartzeko baimena emango da.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Oinarrizko Errenta behar bezala izapidetzeko (Lanbideko bulegoak duen tamainaren eta bulego horren langile administrari-kopuruaren arabera).

### **3.- Obra- eta zerbitzu-kontratuak.**

Estatuko Kontuen Epaitegiaren mozioari jarraituz (*Kontuen Epaitegiarekiko Harremanetarako Batzorde Mistoak onartutako 2010eko urriaren 27ko Ebazpena, administrazioak kontratatzen dituen zerbitzu-enpresen langileak, kontratatutako jarduera gauzatzeko baldintzak direla-eta, epai judizialen ondorioz administrazioako lan-kontratudun langile bihurtzeko arriskua saihestu beharri buruzko mozioaren ingurukoa*), ez da baimenduko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren iritziz "legeari iruzur" eginez kontratatzeagatik demanda jartzea eragin dezakeen obra eta zerbitzuko kontraturik.

### **4.- Oporren kitapena:**

Ordezkapenengatik edo lan-pilaketengatik langileei egindako bitarteko-izendapenak edo aldi baterako kontratazioak bukatu aurretik, langileek opor-egunak hartu beharko dituzte, ez baitira diruz ordainduko. Aurrekoa bukatu eta jarraian izendapen berri bat gertatuz gero, hartu beharreko oporrak sail berrian har daitezke.

### **5.- Txanda-kontratuak amaitzearen ondoriozko kalte-ordainak:**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Lan Kontratudunen Kolektiboentzako 2010-2011 urteetako hitzarmen kolektiboan ezarritakoa garatzen duen Funtzio Publikoko zuzendariaren 2010eko urriaren 4ko Zirkularrak ezartzen du txanda-kontratu bat lanpostuen zerrendan agertzen den plaza bat betetzeko sinatu denean, baldin eta plaza hori amortizatu edo aldatuko ez bada, txanda-kontratuaz ordezkatutako langileak erretiro osoa hartzen duenean bitartekotasuneko lan-kontratu bat edo bitarteko funtzionarioaren izendapena sinatu ahal izango dela txanda-kontratuko langilearekin.

Aurreikuspen horri jarraituz, erretiratu partzial batek erretiro osoa hartzearen ondorioz lanpostu bat bete gabe geratzen denean, ez da aplikatzen aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzearen inguruan 2006ko maiatzaren 30ean hartutako Akordioan ezarritakoa, baizik eta, automatikoki, txanda-kontratuko langilearen aldeko izendapena izapidetzen da.

Hori dela eta, administrazio honetan zerbitzu-emate amaiera hori gertatuko ez denez gero, ez da lan-harremana bukatzen denerako aurreikusita dagoen kalte-ordainik ordainduko.

### **ANTOLAKETA-NEURRIAK**

## 1.- Dauden langileen artean zereginak modu ezin hobean banatzea

Aurreko arauen arabera ordezkatu ezin diren absentzien ondorioz zerbitzuetan sortzen diren zereginak nahiz aldian behin lana gehitzeagatik sortzen direnak gainontzeko langileek hartu beharko dituzte beren gain, zerbitzu berekoek nahiz saileko beste zerbitzu batzuetakoek.

Sail bakoitzaren ardura izango da sail horrek lan egiteko moduan dituen langileen antolamendua egitea, **lehentasunezko zereginak** une oro langile propioekin bete ahal izateko eta ondorengo birbanaketa-irizpideei jarraituz **egingo da**:

1.- Eginkizun berdinak eta berariazko osagarri berdina dituzten zentro bereko langileak.

2.- Eginkizun berdinak eta berariazko osagarri txikiagoa dituzten zentzu bereko langileak.

Sailean ezaugarri horiek dituen pertsona bakar bat baino ez badago eta funtsezko zereginak direla iritziz gero, eginkizunetarako esleipena baimendu ahal izango da.

3.- Antzeko eginkizunak eta berariazko osagarri berdina dituzten atal administratibo berberari atxikitako langileak.

4.- Eginkizun berberak eta berariazko osagarri berdina dituzten beste herri batean kokatuta dagoen atal administratibo ezberdin bati atxikitako langileak.

Kasu hauetan, kalte-ordainak zerbitzuagatik kalte-ordainentzako indarrean dagoen aplikagarri den araudiaren arabera ordainduko dira.

Beharrezkoa izanez gero, nahitaez esleitu ahal izango dira. Aurrerantzean beteko diren eginkizunak ordu arte aginduta eduki dituenen antzekoak izan beharko dira. (Lanpostuak betetzeko araudia, 190/2004 Dekretua).

## 2.- Kanpo-kontratazioak

Jaurlaritzaren Kontseiluak, zerbitzuak kanpora ateratzeko irizpideei buruz, 2010eko urriaren 19an hartutako Akordioan jasotako irizpideei jarraituz, baliabide propioak erabiltzeari emango zaio lehentasuna, eta kanpoko zerbitzuak kontratatuko dira bakarrik zerbitzuari ezin bazaio erabilgarri dauden baliabide tekniko eta giza baliabideekin erantzun eta horien berrantolaketa nahikoa ez denean. Lan egiteko moduan dauden langileen murrizketa dakarten jarraibide honetan aurreikusitako neurriak ezin izango dira alegatu baliabide propioen gabezia justifikatzeko eta kanpo-kontrataziora jotzeko.

## 3.- Plazak sortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 LEGEAK haxe dio 13.3 artikuluan:

"Orokorrean, aurrekontu-plantillak langile-zuzkidura berriak sortuz aldatzen badira, behar beste zuzkidura amortizatu egin beharko dira horren ondorioz, urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin".

Eta 13.4 artikulua honako hau gehitzen du:

“Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita, Gobernu Kontseiluak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren proposamenez, langile-zuzkidura berriak sortzeko baimena eman ahal izango du lanpostuen zerrendak honako arrazoi hauengatik aldatzen badira: eskumenen transferentziak benetan gauzatzen direlako, organo eta zerbitzu berriak sortzen direlako, kanporatutako eta azpikontrataturiko zerbitzuen kudeaketa zuzena egiten delako, lege-mailako arauak aldarrikatzen direlako, edo Gobernuak koiunturakoak ez diren planak, programak eta jarduera garrantzitsuak onartzen dituelako. Horretarako, finantzazio egokia eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoaren alde aurreko aldeko txostena beharko da beti. Txostenean adierazi beharko da ezinezkoa dela premia berriei aurre egitea lanpostuak berratzikita, langileak berrizendatuta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzekeo bestelako baliabideak erabilita”.

Hortaz, 2012ko EAeko Aurrekontuen Legean jasota dauden kasuekin bat datozen dotazioak sortzeari baino ez zaio aldeko txostenik emango: Bai Administrazioari benetan aurrezteko dakarkienak, kanpoan betetzen diren jarduerak baliabide propioekin betetzera pasatzen direlako; bai, lege mailako arauen bitartez, transferentziak, eskumen edo zerbitzu berriak bere gain hartzearen ondorio direnak.

#### 4.- Lanpostuen balorazioa.

Oro har, ez da lanpostuen baloraziorik berraztertuko, sailtako egituretan egiten diren antolamendu-aldaketaren ondorioz behartuta izan ezik, eta betiere balorazio-eskuliburua zorrotz aplikatuz.

#### 5.- Oporrak antolatzea

Zerbitzu zuzendaritzek, langileen oporren egutegia antolatzerakoan, ordezkapenen / metaketaren erabateko murrizketaren ondorioak kontuan hartu beharko dituzte, zerbitzua ematean, eta bereziki zerbitzu publikoa ematean, eraginik ez izateko.

#### 6.- Prestakuntzarako baimenak.

Iraupen ertain edo luzerako prestakuntza-ikastaroetarako baimena eman ahal izango da (diploma, master edo graduondokoen antzekoak) baldin eta sailak bere gain hartzen badu langile horren absentzia zerbitzuko gainontzeko langileekin bete daitekeen, ez baita, inola ere, baimenik emango langileen plantilla aldi baterako handitzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 14a

FUNTZIO PUBLIKOKO ZUZENDARITZA

Izpta.: M. LUISA CUESTA ARANDILLA

